

NEWSLETTER 02

ARTILEAREN ERABILERA ALTERNATIBOETARAKO LANKIDETZA TEKNOLOGIKOA

2021 MAIATZA

ARTILEA ORDEZKOA

Interreg **LANALAND** proiektuaren barruan, **POCTEFA** eremuko ardi-ustiategietako artilea birbalarizatuko duten zenbait prototipo garatu nahi dira. Prototipo horien bidez, balio eran-

tsia eman nahi zaio erabilera urriko artile bati; ez baitu ia inolako erabilera komertzialik, gaur egun, kostu bat da ustiapenarentzat eta honek arazo bat sortzen du hura kentzeko.

ARTILEA, EHUNGINTZAKO POLIESTERRAREN ORDEZKOA

Prototipo horretan, material hori landu dezaketen eta “**ehundu gabeko**” ehuna egiten esperientzia duten hornitzaile potentzialak bilatu dira. Bazkide guztien ezagutza eta harremanak elkarri azaltzeak industria-hornitzaileen-gana eraman gaitu, eta orain azken erabiltzaile potentzia-ekin egiaztatu den ehuna sortzeko gai izan dira. Merkataritzako erabilera posibleak, beren ezaugarriak direla eta, laneko babeseko ekipoetan eta, zehazkiago, muturreko inguruneetarako arropa profesionaletan oinarrituko lirateke.



ARTILEA, PLASTIKOAREN ORDEZKO



Kasu honetan, artilea gaur egun erabilera jakin batzuetarako erabiltzen diren plastikoen ordeztu erabil daitezkeen material plastiko biodegradagarrien osagai gisa planteatzen da. **EKOLBER**-ek eremu horretan kolagenoan eta artilean oinarritutako balizak garatzen ditu, trail- edo lasterketa-zirkuituak mugatzeko eta abar. lasaitasun honekin: balizak ahazteak ez du inolako eraginik ingurumenean aste gutxiren buruan degradatzen direlako, degradazio-denbora **NEIKER**-ek egindako azterketak zehaztuko dute.


KONPOSTAJEA, ONGARRIA

Pirinio Atlantikoetako Nekazaritza Ganbararen nahia artilearen konposta probatzea da, ardi-simaurrarekin nahastuta eta batuzetan hondakin berdeekin. Esperimenterua EAEko plataforma batean egin da, eta, besteak beste, artilea+simaurra eta artilea+simaurra+hondakin berdeak konpostatzeko saiakuntzak egingo dira. Konpostajearen jarraipena egingo da, analisi mikrobiologikoak eginen dira eta konpostaren interes agronomikoak aztertuko dira.

Pirinio Atlantikoetako Nekazaritza Ganbararen helburua artilez egindako ongarrri-pikorrek probatzea da, hondakin berdeekin eta beste landare-materia batzuekin nahastuta. Konformazioko proba tekniko eta mekanikoen ondoren, laborategian ebaluatuko dira pikor horien abantaila agronomikoak eta berariazko erabilerekin lotuko dira.



3D HARIA



Polimero espezifikoekin nahastu aurretik artilea behar bezala tratatu ondoren, material hariztagarri bat egin daiteke 3D inprimagailuetan pieza sortzeko. Prototipo hori **EHUn** garatu da, **NEIKER**en laguntzarekin, eta proba-probetak sortzen hasi da, **NEIKER**ek egindako produktuaren propietateak eta degradabilitasuna probatzeko, eta lortutako materialaren ezaugarrietarako azken produktu egokiak diseinatzeko aukera emango digu.

ARTILEA BIDE BIOLOGIKOTIK GARBITZEA

Artilea kudeatzeko zailtasun handienetako bat da aldez aurreko tratamendu bat behar dela, hau da, lurra, gorozkiak, parasitoak, lanolina eta belloietan egon daitezkeen beste substantzia batzuk desagertaraziko duena, **Pau et des Pays de l'Adour -eko Unibertsitateak**, garbitzeko modu berriak, ekonomikoki jasangarriak eta bideragarriak, garatzeko lan egiten ari da. Prototipo hau Pirinioetako ardi-arraza autoktonoen artilea garbitzeko eredu bat diseinatzean oinarritzen da. Horretarako, ura bakarrik erabiltzen da kantitate txikitik, eta mota guztietako garbigarriak saihesten dira. Eredua ustiakuntzetan instalatzeko sortu da. Esperientzia horrek ardi artilearen mikrobiotari buruzko informazioa ere emango du.



Prototipo horiek guztiak **Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarak** egindako merkatu-azterketa baten xede dira; sektoreko errealitatea, berriz, **LATXA ESNEA** enpresak ematen du, eta proiektuaren hedapen- eta komunikazio lan guztiak **URKOME**ren esku daude. Proiektua **NEIKER**ek koordinatzen du.



Campus Agroalimentario
de Arkaute, s/n (Álava).
(+34) 945 121313
info@lanaland.eu

Laguntzaileak



Interreg
POCTEFA



NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

